

IDENTIFIKATUTAKO KOLEKTIBOA.

ORDAINSARI-SISTEMAREN KONTZEPZIOAREN EZAUGARRIAK.

Kanpoko kontseilukideak.

Kutxabank SAko Administrazio Kontseiluaren Erregelamenduaren 10. artikuluan aurreikusitakoarekin bat, kideek ordainsari bat jasoko dute beren eginkizunak betetzeagatik, estatutu sozialetan aurreikusitako araudira eta une bakoitzean aplikatu beharreko indarreko araudira egokituko dena.

Sozietatearen Estatutuen 29. artikulua 1. apartatuak ezartzen duenez, «Administrazio Kontseiluko kideek, beren eginkizunak betetzeagatik, asistentzia-dieta gisako zenbateko bat eta diru-kopuru finko bat jasoko dituzte, eta akziodunen Batzar Nagusiak zehaztuko ditu haien zenbateko globalak. Administrazio Kontseiluak finkatuko du akziodunen Batzar Nagusiak [kontseilukide guztientzat, eginkizun exekutiboak dituztenentzat barne] adierazitako zenbateko globaletik kontseilukide bakoitzari egokituko zaion zenbateko zehatza, aintzat hartuz betetzen dituen karguak, dedikazioa eta organo sozialen bilkuretara joatea, baita ordainketa-aldizkakotasuna ere».

2022ko ekitaldian, kontseilukide-karguaren ordainsariaren osagai hauek ezarri ziren:

2022ko ekitaldian, kanpoko kontseilukideek edo kontseilukide ez-exekutiboek urteko zenbateko finko bat jaso dute, hamabi hilabetetan banatu dena, baita hilero abonatu den zenbateko aldakor bat ere, kontseilukide bakoitzak Administrazio Kontseiluaren edo batzorde delegatuen bileretara egindako bertaratze-kopuruaren arabera. Baldin eta egun berean edozein batzorde delegaturen eta Administrazio Kontseiluaren saioak bata bestearen segidan egin badira, bertaratuek egun horretako gobernu-organoen bilkura-egunari lotutako dieta bakarra jaso dute.

Horrez gain, Batzorde Delegatuetako lehendakariak –Batzorde Exekutibokoak izan ezik– urteko zenbateko finkoaren % 5 gehigarria jaso dute, eta lehen lehendakariordeak, bigarren lehendakariordeak eta kontseilukide koordinatzaileak urteko zenbateko finkoaren % 10 gehigarria jaso dute.

Kontseilukide batek Batzorde Delegatu bateko lehendakari-kargua eta kontseilukide koordinatzaile kargua metatu dituen kasuetan, metatu egin ditu adierazitako bi gehikuntza-ehunekoak.

Kutxabank SAren Administrazio Kontseilua 16 kidek osatzen zuten 2022ko abenduaren 31n (data horretan, lanpostuetako bat bete gabe zegoen).

Kontseilukide exekutiboak:

Kutxabank Taldearen Ordainsari Politikarako Esparru Korporatiboarekin bat, kontseilukide exekutiboen ordainsaria Administrazio Kontseiluak finkatuko du, betiere akziodunen Batzar Nagusiak finkatutako gehieneko zenbatekoa errespetatuz.

Exekutibo-izaera duten Administrazio Kontseiluko kideentzat ezarritako ordainsari-eredua Bankuaren egoera eta Entitatearen berezko berezitasunak kontuan hartuta ezarri da, gobernu-

organoen barruan dituzten eginkizunen izaera kontuan hartuz bereziki. 2022a ixtean, eginkizun exekutiboak zeuzkaten bi kontseilukide zeuden KUTXABANKen: lehendakaria eta kontseilukide delegatua. 2022ko ekitaldian, hiru pertsonak bete dituzte eginkizun exekutiboak, Administrazio Kontseiluko aurreko lehendakaria barne, 2022ko azaroaren 30era arte egonik indarrean.

Ordainsari finkoa

Kargu horietarako, administrazio-eginkizun iraunkorrak eskuordetuta izan eta goi-zuzendaritzako funtzioak betetzen dituztenentzat, ordainsari finko bat ezarri da, beren erantzukizunaren eta arduraldi eskusiboaren arabera eta Taldearen politika orokorarekin bat datorrena.

Ordainsari aldakorra

Ordainsari aldakorra zuhurtziazko zentzuan hartuz –hau da, ordainsari aldakorra eta arau-ondoreetarako halakotzat hartutako beste kontzeptu batzuk barnean hartuta (aurreikuspen-sistemarako ekarpenen zati gisa, hala dagokionean)–, Administrazio Kontseiluko lehendakariaren kasuan, 2022a ixtean, Arriola jaunaren kontratuak ordainsari finkoko osagai bakarra aurreikusten du. García Lurueña jaunak betetzen duen kontseilukide delegatuaren karguari dagokionez, haren kontratuak urteko ordainsari aldakorreko osagai bat aurreikusten du. Osagarri horren kalkulu-oinarria –bonua edo erreferentzia-oinarria izenekoak– % 36 da ordainsari finko osoaren gain; ordainsari aldakorraren % 100 lotuta geratzen da kontratu bidez klausula korporatiboetako eta arau-esparruari, geroratzeari, zati bat akzioen ordezkotresna gisa likidatzeari eta aurrerago zehazten diren *ex post* arriskura egokitzearen klausulen mendekotasunari dagokienez.

Azkenik, 2022ko azaroaren 30era arte Administrazio Kontseiluko lehendakari-karguan jardun zuen Villalabeitia jaunari dagokionez, haren kontratuak aurreikusten zuen urteko ordainsari aldakorreko osagaiaren kalkulu-oinarria ordainsari finko osoaren % 50 zen.

Bestalde, Bankuko Administrazio Kontseiluko kide batzuek enplegu ondoko prestazioak jasotzeko eskubidea dute, kontseilukide izateagatik. Horrez gain, Administrazio Kontseiluko kide batzuek ekarpen definituko pentsioengatik eskubideak zituzten, Entitatean lanpostuak bete zituzten ekitaldietan sortuak. Konpromiso horiek taldetik kanpoko aseguru-etxeekin eta borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeekin egindako aseguru-polizen bidez kanporatuta zeuden 2022a ixtean.

2022an zehar kontseilukide exekutibo izaera izan duten hiru pertsonetako batek ere ez zuen jaso ekitaldian zehar erakunde nagusiaren gobernu-organoko bileratara joateagatik dietarik, aurreko atalean eginkizun betearazlerik gabeko kontseilukideentzat deskribatutakorik. Bestalde, erakunde nagusiko Administrazio Kontseiluko kideek ez zuten zenbatekorik sortu 2022an Taldeko sozietateen gobernu-organoen barruan karguak betetzeagatik.

Goi zuzendaritza eta identifikatutako gainerako kolektiboa:

Ordainsari finkoa.

Kolektibo horrentzat indarrean dagoen sistemak merkatuko erreferentziak hartuz kalkulatu du ordainsari finkoa. Lehenik eta behin, lanpostu funtzionalak mailaren arabera sailkatzen dira, erakundearen barruko ekarpen- eta erantzukizun-mailaren arabera. Bigarrenik, gaur egungo ordainsariak merkatuko batezbestekoarekiko kasu partikular bakoitzean duen posizio erlatiboaren arabera, ordainsariaren urteko eguneratzea mailakatu egiten da, pixkanaka-pixkanaka, eta horrek aukera ematen du era mailakatuan merkatu-erreferentziara hurbiltzeko.

Sistema honen ondoriozko gehikuntzak ez lirateke finkagarriak izango antzinatasunari edo hitzarmen kolektiboko beste elementu batzuei lotutako kontzeptuengatik izan ezik, edo zuzendaritza-taldeari aplikatu beharreko kontsolidazio-sistemaren barruan aurreikusitako kasuetan eta egutegiarekin. Horrela, ordainsaria bat dator erakundearen barruan betetzen den eginkizunarekin. Eginkizun hori utziz gero, programaren barruan finkatu ezin izan diren ordainsari-elementuak bertan behera geratuko lirateke.

Ordainsari aldakorra.

2022ko ordainsari aldakorra ordainsari finkorako egindako azterketaren emaitza berdinak kontuan hartuta zehazten da. Kasu horretan, aldagaiaren ehunekoak maila horretarako ordainsari finkoaren batezbestekoaren gainean kalkulatu dira, eta, beraz, adierazgarriagoak izango dira azpitik daudenentzat eta gutxiago gorago daudenentzat.

Barne-kontrolako funtzioei aplikagarri zaizkien ordainsari aldakorreko sistemek elementu bereizleak dituzte eredu orokorraren aurrean, beren funtzioa bere kontrol-eginkizunaren xede diren gainerako eremuekiko independentzia babesteko helburuarekin.

Aldakorraren geroratzeak.

Geroratze-klausula honetan datza: aplikatzekoa den kasuetan, urteko ordainsari aldakorraren % 60 bakarrik likidatzea sortzapearen hurrengo ekitaldian, eta gainerako % 40aren kobrantza geroratuta geratuz hurrengo lau urteetan zehar, edo bost urteetan, Kutxabankeko kontseilukide exekutiboan eta Taldeko goi-zuzendarien kasuan, laurden edo bosten batekin urteko, hurrenez hurren.

Geroratutako zatia libratzea, behin atxikipen-epeak amaitutakoan, ex post arriskuaren balorazio edo doikuntzaren mende egongo da, eta murriztuta geratu ahal izango du, baita ezabatuta ere, baldin eta Entitateak oro har duen egoeraren arabera jasangarria izango ez balitz, Entitatearen, negozio-unitatearen edo zuzendaritzako kidearen emaitzen arabera justifikatzen ez bada.

Aldakorraren likidazioa kapital-tresnetan.

Horretarako arau-esparruaren arabera, geroratze-klausulaz gain –ordainsari-politikaren zati gisa eta lehen aipatutako proportzionaltasun- eta materialtasun-printzipio beren mende–, aplikatzekoa den kasuetan ere egiten da ordainketa aldakorraren % 50aren likidazioa eskudirutan, eta beste % 50, gutxienez, kapital-tresnetan (azken horiek urtebeteko atxikipenaren mende daude).

KUTXABANK SA entitatearen eta Taldeko erakunde batzuen egitura sozietario espezifikorekin arabera, akzio teorikoetan edo phantom share direlakoetan oinarritutako akzioen ordezkotresnen bidez egituratzen da gaur egun. Entitatearen balioari eta bilakaerari lotutako tresnak dira, partaidetza-eskubide teorikoen errealizazioan edo balio-galeran oinarritutako abonua sistema baten bidez. Kapital soziala zatitu egiten da, eta azken likidazioa beti aldeko ex post ebaluazio bat izatearen mende dago; murriztu edo ezabatu ere egin daiteke, ordainsari geroratua likidatzeko aplikatutako irizpide bereberri jarraituz.

Arriskura doitzeko ex post, malus eta clawback klausulak.

Aurreko sistemei aplika dakiekeen CRD V Zuzentarauan ezarritako proportzionaltasun- eta materialtasun-irizpide berari jarraituz, bi klausula horiek zehazki arau-esparruak ezartzen duen eskakizunean oinarritzen dira, estatu kide bakoitzaren kontratu- eta lan-zuzenbidearen printzipio orokorrekin kalterik egin gabe, sortutako ordainsari aldakorraren % 100 arte (zehazkiaren zentzuan) nabarmen murriztu ahal izateko baldin eta portaera negatiboa ikusten bada entitatearen emaitzetan, bere kapital ratioetan edo aipatutako araudian eta barneko ordainketa-politikan aurreikusitako beste parametro batzuetan. Kasu horietan, malus edo murrizketa-klausulak likidatzeko dauden ordainsari aldakor geroratuen zenbatekoak murrizteko aukera emango luke, eta clawback edo berreskuratze-klausulak jada ordaindutako zenbatekoak berreskuratzeko aukera emango luke.

Emaitzen ex post ebaluazioan kontuan hartu beharreko parametro orokorrak hauek dira: ebaluatutako pertsonaren entitateak eta/edo unitateak lortutako emaitza finantzarioak, erregulazio-kapital ekonomikoaren oinarriaren bilakaera, egindako arrisku-kudeaketa, prozedurak bete ez dituen ala ez, barne-arauak edo erregelamenduzko zehapenak ezarri diren ala ez.

Aurreikuspen-sistemak.

Entitatearen barruan ekarpen definituko gizarte-aurreikuspeneko sistemak daude erretiro-kontingentzia estaltzeko, eta heriotza- eta baliaezintasun-arriskuak ere estaltzen dituzte, kasu horietarako prestazio osagarri batzuk definituz.

Ekarpenen araubidea hitzarmen kolektiboan zehaztuta dago langileen % 99arentzat, eta erregulartasun-irizpideei jarraitzen die. KUTXABANKeko gizarte-aurreikuspeneko sistemak bateragarriak dira enpresa-estrategiarekin, helburuekin eta epe luzerako interesekin, eta ez dute bere kaudimen-maila arriskuan jartzen.

Identifikatutako kolektiboaren zati handi batek gainerako langileekin partekatzen ditu merkatuarekin bat datozen sistema horiek. Horren barruan, gainera, beste sistema osagarri batzuk ere badaude berme gehigarriekin –kasuren batean prestazio definitukoak–, betiere erretiro, heriotza eta baliaezintasun kasuetan estaldurak emateko filosofiatik abiatuta. Era berean, kasu horietan, ekarpenen erregimena erregulartasun-printzipioarekin bat dator, bai eta merkatuan ohikoa den praktikarekin ere.

Hala ere, sistema osagarri horiei dagokienez eta banku-entitateetako administratzaileen, zuzendari nagusien eta parekoen kolektiboari dagokionez, Espainiako Bankuaren 2/2016 Zirkularrak irizpide berriak ezartzen ditu ekarpenen izaera zehazteko, bai ekarpenen bolumena eta bai haietatik eratorritako eskubideen kontsolidazioa egokitzeko ex ante eta ex post arriskuengatiko doikuntzetara, ordainsariaren osagai aldakorren antzera.

Eskakizun horiek aplikatuz, KUTXABANK TALDEAk, modu berean arau-esparruan aurreikusitako proportzionaltasun-printzipioaren mende, eskakizun hori betetzeko sistemak inplementatu ditu, eta aurreikuspen-sistemetara egindako ekarpenen osagai aldakorra aurrez deskribatutako ordainsari aldakorrerako murrizketen mende jarri du, ordainsari-mota honetarako arauan aurreikusitako berezitasun propioekin, adibidez, 5 urteko gutxieneko geroratze-epearekin.

Kargua uzteagatiko kalte-ordainak.

Identifikatutako kolektiboari eragiten dioten kalte-ordainen itunak, era berean, ordainketa-politika egokiei buruzko EBA zuzentarauak aurreikusitakoaren arabera ordainsari aldakorrari aplikatu beharreko murriztapenen mende egongo dira, horietan jasotako proportzionaltasun-printzipioa aplikatuz.

Arau orokor gisa, kalte-ordainak denboran zehar lortutako emaitzetan oinarrituko dira, eta ez dute emaitza txarrik sarituko, ez jokabide bidegaberik.

Ez da kalte-ordainik emango identifikatutako kolektiboko kideak kontratua berehala suntsiaraztea justifikatzen duen ez-betetze larri eta ageriko kasuetan, ezta bere borondatezko baja bat denean ere.